

Topalekua

37zk. 2006ko azaroa

noviembre 2006 - nº 37

1. eta 2. or.: *José Miguel Martínez Urquijo, EHUKo Gizarte Kontseilu presidente berria.*

2. or.: *Gizarte Kontseiluak EHUKo 2006-2010 denboraldiko azpiegituretan egin beharreko inbertsioen urte anitzeko plana onetsi du.*

3. or.: *Kontseiluak plan estrategikoa berrikusiko du.*

4. or.: *Unibertsitateko irakas-kuntzen antolakuntza berriari buruzko egitasmoaren ibilbidea hasi da.*

JOSÉ MIGUEL MARTÍNEZ URQUIJO, EHUKo GIZARTE KONTSEILUKO PRESIDENTE BERRIA

Uda aurretik, Lehendakariak –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak hala eskatuta– José Miguel Martínez Urquijo jauna Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko presidente izendatu zuen.

José Miguel Martínez Urquijo Industria Ingeniaritzako doktorea da. Azken lau urteetan (2002-2006) Unibertsitateko gobernu-organoko presidentea izan den José Mendiaren lekua hartu du.



JOSÉ MIGUEL MARTÍNEZ URQUIJO, EHUKO GIZARTE KONTSEILUKO PRESIDENTE BERRIA

Halaber, bere lanbide-karrera zabalean zehar, CADEM zentroaren sorreran eta garapenean parte hartzeaz gain, EEEko (Energiaren Euskal Erakundea) zuzendari nagusia izan da. Horrez gain, ICR-Consultores enpresaren fundatzailea izan da eta Iberdrolan zuzendaritzako erantzukizun ezberdinak egikaritu ditu, hala nola, Iberdrola Dibertsifikazioko kontseilari zuzendari nagusia eta aipatu konpainiaren Zuzendaritza Batzordeko kidea.

Azken kontseiluko osoko bilkuran, Martínez Urquijok lehen aldiz zuzendutakoa, kargua utzi zuen presidentea agurtu zen. Biler horretan, presidente berriaz gain, kontseilariak, EHUKo errektorea, organoko Idazkaritza Nagusia eta kontseiluko Ignacio M^a Echeberria eta Pedro Larrea presidente ohiak izan genituen.

GIZARTE KONTSEILUAK EHUKO 2006-2010 DENBORALDIKO AZPIEGITURETAN EGIN BEHARREKO INBERTSIOEN URTE ANITZEKO PLANA ONETSI DU

José Miguel Martínez Urquijok lehen aldiz zuzendutako EHUKo Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak, urriaren 26an Bilbon egindako azken bileran, EHUKo 2006/2010 denboraldiko Azpiegituretan egin beharreko Inbertsioen Urte Anitzeko Plana onetsi zuen. Plan horren arabera, euskal unibertsitate publikoan 212,9 milioi euroko jarduketak jaso dira, eta horietatik 17,5 milioi euro Arabara, 154 milioi euro Bizkaira eta 40,6 milioi euro Gipuzkoara zuzenduko dira.

Kontseiluaren erabakian irizpide zehatz bat jaso da. Hain zuzen ere, aipatu planaren azterketa ekonomikoari buruzko ohar batzuk bildu dira, horien artean, autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emango diren 123,2 milioi euroko finantzaketa ziurtatuta duela adierazten dutenak. Unibertsitateak obra bakoitza epealdi bakoitzeko finantzaketara doitu du eta hiru hilerik behin baldintzapean dauden obren finantzaketa zehaztuko du. Plana betearazteko beharrezkoa denean, Gizarte Kontseiluak, aurretiaz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena aurkeztuta, horien ondasunen eta xedatze-egintzen aurka-jartzea onetsiko du.”

Kontseiluak, orobat, Meatze Ingeniaritza Teknikoaren Eskolaren izendapena aldatzeko erabakia onetsi zuen, orain Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza

Teknikoaren Unibertsitate Eskola deituz, bai eta EHUK CIC NANOGUNEn izandako bazkide fundatzailearen parte-hartzea ere. Izan ere, CIC NANOGUNE oinarritzko lau arloetan ezagutza sortzen duen zentro espezializatua dugu: nanoegiturak, nanomaterialen fabrikazioa, nanotresnen eta nanopartikula biofuntzionalen garapena.

Hitzarmena espetxeekin

Azkenik, Kontseiluko osoko bilkurak, Batzorde Akamedikoak hala proposatuta, Errektoreen Konferentziari, indarreko legeriaren arabera, Espetxeen eta EHUn artean hitzarmen-esparrua eratze eskaera egin zaio, hain zuzen ere, euskal herriko unibertsitateak espetxeratuei irakaskuntzak emateko baldintzak jasoko dituen.

Hitzarmen horrek –Kontseiluko erabakiak gehitu du– “euskarazko edo gaztelaniazko irakaskuntza, ikasketamota horrek eskatzen dituen baldintzetan eta nahitaezko zorrotasun eta kalitatearekin ematea bermatuko du, ahal den neurrian, metodologia pedagogikoa espetxeratu inguruabar berezietara egoki dadin, betiere Espetxeetako Administrazioaren aurretiazko baimenarekin. Horrela, unibertsitatearen barruan, berme guztiak bilduko direnez, alderdi guztiek errespetatuko dute”.

EUSKO JAURLARITZAK 15 MILIOI EMAN DITU ORDAINSARI OSAGARRIAK ORDANTZEKO

Gobernu Kontseiluak urriaren 17an unibertsitateko irakasleei ordaindu beharreko ordainsari osagarriak arautzen dituen Dekretua onetsi zuen.

Neurri horrek EHUKo 3.372 irakasle barnean hartuko ditu, plantilla osoaren %84, hain zuzen.

Dekretua bitarteko irakasleei eta denboraldi partzialeko arduraldia duten irakasleei aplikatuko zaie. Hala ere, ordainsaria arduraldi-motaren arabera ordainduko da.

Euskal exekutiboaren ekarpena gastu osoaren %85-%90 (15 milioi euro) artean kokatzen da. Gainerakoa EHUko baliabide propioekin finantzatuko da.

KONTSEILUAK PLAN ESTRATEGIKOA BERRIKUSIKO DU

Azken osoko bilkuran, hasieran 2000-2003 lau urterako eratutako Plan Estrategikoa berrikusteko erabakia hartu zen, kide guztiek xede eta ardatz estrategikoen berraketan nahiz taktika berrien identifikazioan, jardueraren lehentasunen atxikipenean, beharrezko baliabideen balioespenean eta erantzukizunaren mugapenean parte har zezaten.

Aurreko planaren xedea, 2000ko urtarrilaren 31an onetsitakoa eta Robert Winter irakaslearengana zuzendutakoa –orain hasiko den berrikuspena koordinatuko duena-, unibertsitatearen eta gizartearen arteko lankidetzara garatu eta hobetzea izateaz gain, Gizarte Kontseilua bi horien arteko lotura bihurtzea izan da. Planak sei ardatz estrategiko izan ditu eta horietan benetako plan operatiboa konfiguratzeko zuten 16 jarduketara-erlo edo programa biltzen dira.

Plan hori abian jarri denetik, Kontseiluak Unibertsitatearen gizartearen ahotsa gisa finkatu da. Horrenbestez, jarduerara sakona hedatu du plan horretan zehaztu sei taktiken inguruan:

1. Unibertsitatearen irudia gizarteari erakusteko komunikatzailea.

- Topalekua buletinean, osoko bilkura bakoitza egin ostean, erabaki eta jarduerara nagusiak bilduko dira. Gutxi gora behera 1.000 jasotzaile ditugu.

- Kontseiluari buruzko informazio osoa (lege-esparrua, txostena, jardunaldia, buletinak, prentsa-oharrak, ...) irakasleek, ikasleek, enpresaburuek, herritarrek, etab.ek eskuragarri izango dute www.ehu.es/consejosocial web orrian.

2. Gizartearen ahotsa unibertsitatean

- Lan-merkatuko behatokia Egailan Sozietate Publikoarekin lankidetzan. Bost sustapenei (98, 99, 00, 01 eta 02) elkarriketa egingo zaie. 2007. urtean, 03 sustapena elkarriketatuko da. Txostenak ikasleek, enplegatuek, administrazioek eta jendeak orokorrean eskuragarri izango dituzte.

- Kontseiluak Udako Ikastaroetan parte hartu du, ikasleek lan-merkatuari eta enplegua bilatzeko prozesuari buruzko informazioa jasotzeko.

3. Harremanetan jartzeko sustatzailea

- Matematikaren Munduko Urtea dela eta, akademikoen eta enpresaburuen topaketaren bidez enpresako antolakuntzak kudeatzeko analisi matematikoen tresnak eskualdatzeko egokia izan zen.

- Akademikoak eta gizarte-eragileak bildu ziren X. Urteurrenean eta unibertsitatearen hurrengo mendeko kezkak eztabaidatu ziren.

4. Aldaketaren katalizatzailea

- 2001-2002 ikasturterako bost titulazio berri ezartzea eta Zuzenbide, Zientzia Kimikoak eta Arkitektura karreraren ikasketa-planak aldatzea.

- 2006an, Kontseiluak gradu-ondo ofizialak onartu zituen, ia gehienak kalitatezko aipamenean ondoriozkoak. 2005 eta 2006.

urteetan Gradu-ondoko Errektoreordearekin lankidetzan jardun du gradu-ondoko kanpoko azterketari dagokionez.

- Gainera, 2006an, unibertsitateko adituekin batera, Kontseiluak EHUko Titulazio Propioen Azterketa egin zuen, ez-ofizialak, alegia, beharizan ezberdinen arabera, hala nola, sozioekonomikoak, lanekoak eta kulturakoak, titulu propio horiek etorkizunean garatzeko ardatzak zehaztuz. Azterketa horretan, 30 aditu eta erakunde baino gehiagok parte hartu dute.

5. Zergaduna unibertsitateko kudeaketari dagokionez

- Unibertsitateak aurrekontu-egoera zaila bizi izan du 2001. urtetik, 2000-2003 Unibertsitateko I. Planean kudeaketarako lehentasunak eta helburuak ezarri arren.

- 2003an, Hirualdeko (Gobernua, Unibertsitatea, Kontseilua) Batzordean parte hartu zuen. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzak sortu zuen, unibertsitateko finantza-egoera aztertzeko.

6. Kontseiluaren eta Unibertsitatearen arteko hurbiltasuna.

- Eusko Legebiltzarraren X. Urteurrena. Ganbarako presidentek (legebiltzarrak 8 ordezkari ditu kontseiluan) kontseilua agerrarazi zuen elkarriketaren, negoziatzeko eta erabakiaren ondoriozko fruitu edo emaitza gisa erakunde, gizarte eta akademiaren ordezkariak handiaren aurrean. Errektoreak azpimarratutakoaren arioren, EHUk jadanik ez luke aurrera egingo Gizarte Kontseilurik gabe.

- Kontseiluak 3 ordezkari ditu Gobernu Kontseiluan (lehen Gobernu Batza) 2002. urtetik.

- Udako Ikastaroen Fundazioan parte hartzen du.

- Unibertsitateko sistemako bestelako organoetan parte hartzen du: Unibertsitatearen Euskal Kontseiluan eta Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoaren Koordinazio Kontseiluan.

Horrez gain, Kontseiluak beste jarduerara batzuk garatu ditu Unibertsitatearen lankidetzarekin:

- Unibertsitateak hala proposatuta, banaka ia 1.800 irakasleei ordainsari osagarriak ordaindu zituzkien, ikerketa edo erakundearen parte hartzeari buruzko beharriaren kontuan izanda.

- Unibertsitatea Eraldatzeko Lege Organikoaren proiektua eman zuen, eskumen autonomikoak errespetatzea eskatuz. Gainera, unibertsitatea eraldatzeko erabakiaren aurrean oso zorrotza agertu zen.

- Ikasleen iraunkortasunari buruzko arauak aldatu zituen, Unibertsitateak hala eskatuta, malguak bihurtzeko xedearekin.

Jarduketa horiek guztiek Gizarte Kontseiluaren xedea eskuratu nahi izango dute eta Plan Estrategikoak xede hori hiru ardatzetan zehazten zuen: Kontseiluaren eta Unibertsitatearen arteko lotura, Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotura eta Kontseiluaren eta Gizartearen arteko lotura.



UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZEN ANTOLAKUNTZA BERRIARI BURUZKO EGITASMOAREN IBILBIDEA HASI DA

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak autonomia-erkidegoko unibertsitateen errektoreei eta arduradunei etorkizuneko unibertsitateko irakaskuntzak antolatzeke proposamena igorri die, batez ere, Europako Hezkuntzaren Espazio Erkidearen aurreikuspenetara egoki daitezen.

Bi urte barru ezarriko den eraldaketan aurreikusitakoaren arabera, ikasketak hiru ziklotan –gradua, masterra eta doktoretza– antolatuko dira, eta lehenengo urtea erkidea izango da ezagutza-arlo bakoitzeko karrera guztietan. Ministerioak 2007ko bigarren hiruhilekoaren hasieran LOU (Unibertsitateetako Lege Organikoa) eraldaketa onartzea eta gradu eta gradu-ondoko irakaskuntzak bezalako alderdiak, titulazioak eratzeko gida-lerroak edo tituluak homologatzeko sistemak garatuko dituzten dekretuak hurrengo urteko irailean kaleratzea nahi du.

Gobernuak proposatu duenez, graduako tituluek 240 kreditu izateaz gain, lau urtetan egin eta horiek guztiak ezagutza-adar handien arabera antolatu beharko dira: arte eta giza zientziak, zientziak, osasun-zientziak, zientzia sozialak eta juridikoak, eta ingeniariaritzaz-

arkitektura. Horrez gain, titulua eskuratzeko, ikasleek karrera-amaierako lana egin eta hori defendatu beharko dute.

Europako arauketa betearazteko, ikasleak karrera batetik bestera –ezagutza-adar berean– mugitu ahal izango dira, “erabaki batzuen atzeraezintasuna saihesteko”. Bestalde, ikasleek atzerriko unibertsitatean gutxienez ere sei hileko bat burutzea bultzatuko da.

Masterra espezializazioa izango da eta 60-120 kreditu artean izango ditu. Kasu horretan ere, masterraren amaieran ikasleek lana defendatu beharko dute. Doktoretzako programari dagokionez, prestakuntza-eta ikerketa-epealdian bananduko da, eta doktoretza-tesia egiteko beharrezkoak diren jarduerak garatuko dira.

Bistakoa denez, eta gaur egun ezagunak ditugun “Lizentziatura” eta “Diplomatura” tituluak desagertu arren, titulu berriek ez dituzte desagerraraziko jadanik abian daudenak edo luzatu direnak.

Unibertsitateko Irakaskuntzen Antolaketa Berria.

Ildo orokorrak

- Hiru titulu: Gradua (240 kreditu lau urtetan), Masterra (60-120 kreditu) eta Doktoretza (prestakuntza eta ikerketa).
- Graduan eta Masterrean karrera-amaierako lana egin eta defendatu beharko da
- Lizentziatura eta Diplomatura tituluak desagertuko dira
- Bost ezagutza-arlo: arte eta giza zientziak, zientziak, osasun-zientziak, zientzia sozialak eta juridikoak, eta ingeniariaritzaz-arkitektura.
- Lehenengo urtea erkidea izango da ezagutza-adar bereko karreraren arteko mugikortasuna errazteko
- Ikasleek atzerriko unibertsitateetan gutxienez ere sei hileko bat burutuko dute
- Unibertsitateek gradu-tituluak diseinatuko dituzte eta ikasketa-planak egingo dituzte, ezagutza-adar bakoitzaren gida-lerro orokorrak beteta
- Tituluak eta ikasketa-planak aldizka ebaluatuko dira
- Izapidetzea 2008ko apirila arte: autonomia-erkidegoen onespina, Unibertsitate Kontseiluaren txostena, Ministro Kontseiluaren onespina eta erregistroan egindako inskripzioa.
- Gradu berriak 2008-09 ikasturtean hasiko dira ematen eta 2012ko uztailan graduoko lehenengo sustapenak kaleratuko dira.